

**Ebazpena: R83/2022**

**Espedienteak: 34/2021 eta 29/2022**

Gasteizen, 2022ko urriaren 20an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

## **ERABAKIA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean GFA) Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren aurrean aurkeztutako gatazkaren inguruan (aurrerantzean ZAEA), zeinaren helburua baita 2016, 2017, 2018, 2019 eta 2020ko ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko (aurrerantzean I+G+B) jarduerak direla-eta itzulketak egiteko eskumena zehaztea, CCISL zergadunaren eskariz (aurrerantzean, zergaduna), eta Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da 34/2021 eta 29/2022 espediente-zenbakiekin.

## **I. AURREKARIAK**

**1.-** Zergadunak, aipatutako urtean, eragiketen bolumenen proportzioan ordaindu zuen, Estatuko araudiaren arabera.

2.- Horren arabera, I+G+Bko monetizazioari dagokion eragiketen bolumenen proportzioa itzultzeko eskatu zuen GFAn aurkeztutako autolikidazioan.

3.- Gatazka planteatu zen Arbitraje Batzordearen aurrean, Estatuaren alde GFak eskumena baliatzeari uzteko eskatu ondoren, aipatutako itzulketa egiteko, eta haren eskumenik eza berretsi ondoren.

4.- Alderdiek jarrerak berretsi dituzte hasierako eta amaierako alegazio-idazkietan, eta gatazka ebazteko prest geratu da.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Ekonomia Ituneko 66.Bat artikulua ezartzen du Arbitraje Batzordearen eginkizunak hauek direla:

*a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.*

*b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.*

*c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.*

Kasu honetan, ebatzi behar da I+G+B kenkariaren monetizazioari dagokionez GFari tributazio-proporzio bat dagokion, eta horrek, era berean, berekin dakar interpretatzea Ekonomia Itunaren arabera itzulketa hori itunduta dagoen ala ez.

## 2.- I+G+B kenkariaren monetizazioa arautzea.

Sozietateen gaineko Zergaren Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 5eko 4/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 44.2 artikuluan, *ratione temporis* gatazkari aplikatu dakiokenean, honako hau dio:

*2. Hala ere, karga-tasa orokorra, ehuneko 35eko tasa edo Lege honen 114. artikuluan aurreikusitako karga-eskala aplikatu beharreko entitateen kasuan, Lege honen 35. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan aipatutako ikerketa- eta garapen-jardueren eta berrikuntza teknologikoaren ondoriozko kenkariak, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan sortzen direnak, aurreko apartatuko azken paragrafoan ezarritako mugatik kanpo geratu ahal izango dira, aukeran, eta haien zenbatekoaren ehuneko 20ko deskontuarekin aplikatu ahal izango dira, apartatu honetan ezarritako moduan.*

*Kuota nahikoa ez bada, Zerga Administrazioari hura ordaintzeko eskatu ahal izango zaio zerga honen aitortpenaren bitartez, hurrengo a) letran aipatutako epea amaitu ondoren. Ordainketa horrek Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluan eta hura garatzeko araudian xedatutakoari jarraituko dio, eta ez da inolaz ere 2. apartatuan aipatzen den berandutze-interesaren sortzapenik gertatuko.*

*Apartatu honetan xedatutakoaren arabera aplikatutako edo ordaindutako kenkariaren zenbatekoak, berrikuntza teknologikoko jardueren kasuan, ezin izango du batera milioi 1 euroko zenbatekoa gainditu urtean.*

*Halaber, apartatu honetan xedatutakoaren arabera, ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatik aplikatutako edo ordaindutako kenkariaren zenbatekoak ezin izango du batera, eta kontzeptu guztiengatik, 3 milioi euroko zenbatekoa gainditu urtean. Bi muga horiek sozietate-talde osoari aplikatuko zaizkio, talde bereko entitateen kasuan, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera.*

*Apartatu honetan xedatutakoa aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:*

- a) Gutxienez urtebete igarotzea kenkaria sortu zen zergaldia amaitu zenetik, kenkaria aplikatu gabe.*
- b) Batez besteko plantilla edo, bestela, ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jardueri atxikitako batez besteko plantilla ez murriztea kenkaria sortu zen zergaldiaren amaieratik hurrengo c) letran aipatzen den epea amaitu arte.*
- c) Aplikatu edo ordaindutako kenkariaren zenbateko baliokidea erabiltzea ikerketa eta garapen eta berrikuntza teknologikoko gastuetarako edo jarduera horiei bakarrik atxikitako ibilgetu material edo aktibo ukiezineko elementuetan inbertsioak egiteko, higiezinak kanpo, dagokion aplikazioa edo ordainketa egiten den zergaldia amaitu ondorengo 24 hilabeteetan.*
- d) Entitateak jarduera ikerketa eta garapen edo berrikuntza teknologiko gisa kalifikatzeko txosten arrazoitu bat edo jarduera horiei dagozkien gastuak eta inbertsioak baloratzeko aurretiazko*

*akordio bat lortzea, Lege honen 35. artikulua 4. apartatua ezarritako moduan.*

*Betekizun horietako edozein betetzen ez bada, bidegabe aplikatu edo ordaindutako kopuruak erregularizatu beharko dira, Lege honen 137.3 artikulua ezarritako moduan. (...)"*

Bestalde, Sozietateen gaineko Zergaren azaroaren 27ko 27/2014 Legearen (SZL) 39.2 artikulua arabera:

*2. Hala ere, karga-tasa orokorra, Lege honen 29. artikuluko 1. edo 6. apartatua aurreikusitako karga aplikatu beharreko entitateen kasuan, Lege honen 35. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan aipatutako ikerketa- eta garapen- jardueren eta berrikuntza teknologikoaren ondoriozko kenkariak, aurreko apartatuko azken paragrafoan ezarritako mugatik kanpo geratu ahal izango dira, aukeran, eta haien zenbatekoaren ehuneko 20ko deskontuarekin aplikatu ahal izango dira, apartatu honetan ezarritako moduan.*

*Kuota nahikoa ez bada, Zerga Administrazioari hura ordaintzeko eskatu ahal izango zaio zerga honen aitortzearen bitartez, hurrengo a) letran aipatutako epea amaitu ondoren. Ordainketa horrek Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren 31. artikulua eta hura garatzeko araudian xedatutakoari jarraituko dio, eta ez da inolaz ere 31. artikuluko 2. apartatua aipatzen den berandutze- interesaren sortzapenik gertatuko.*

*Apartatu honetan xedatutakoaren arabera aplikatutako edo ordaindutako kenkariaren zenbatekoak, berrikuntza teknologikoko jardueren kasuan, ezin izango du batera milioi 1 euroko zenbatekoa gainditu urtean.*

*Halaber, apartatu honetan xedatutakoaren arabera, ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatik aplikatutako edo ordaindutako kenkariaren zenbatekoak ezin izango du batera, eta kontzeptu guztiengatik, 3 milioi euroko zenbatekoa gainditu urtean. Bi muga horiek sozietate-talde osoari aplikatuko zaizkio, talde bereko entitateen kasuan, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideen arabera, kontuan hartu gabe non duten egoitza eta urteko kontu bateratuak egiteko betebeharra.*

*Apartatu honetan xedatutakoa aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:*

*a) Gutxienez urtebete igarotzea kenkaria sortu zen zergaldia amaitu zenetik, kenkaria aplikatu gabe.*

*b) Batez besteko plantilla edo, bestela, ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerari atxikitako batez besteko plantilla ez murriztea kenkaria sortu zen zergaldiaren amaieratik hurrengo c) letran aipatzen den epea amaitu arte.*

*c) Aplikatu edo ordaindutako kenkariaren zenbateko bera bideratzea ikerketa eta, garapen eta berrikuntza teknologikoko jardueretara edota jarduera horietara bakarrik atxikitako ibilgetu materialaren edo ibilgetu ez-materialaren elementuetako inbertsioetara, higiezinak salbu, dagokion aplikazioa edo ordainketa-eskaera egiten den aitopeneko zergaldia amaitu ondoko 24 hilabeteetan.*

*d) Entitateak jarduera ikerketa eta garapen edo berrikuntza teknologiko gisa kalifikatzeko txosten arrazoitu bat edo jarduera*

*horiei dagozkien gastuak eta inbertsioak baloratzeko aurretiazko akordio bat lortzea, Lege honen 35. artikulua 4. apartatuan ezarritako moduan.*

*Gainera, zergaldiko ikerketa- eta garapen-gastuek haren negozio-zifraren zenbateko garbiaren ehuneko 10 gainditzen badute, zergaldi horretan sortu den Lege honetako 35. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako kenkaria aurreko paragrafoko azken lerrokan zehaztutako mugatik kanpo geratu ahal izango da; horrela, haren zenbatekoaren ehuneko 20ko deskontua aplikatu edo ordaindu ahal izango da aurreko a) letran adierazitako epea igaro ostean aurkeztutako lehen aitopenean, 2 milioi euroko zenbateko gehigarrira arte.*

*Baldintza horietako edozein betetzen ez bada, bidegabe aplikatu edo ordaindutako kopuruak erregularizatu beharko dira, Lege honen 125.3 artikuluan ezarritako moduan”.*

### **3.- I+G+B kenkariaren alderdi garrantzitsuak.**

SZLren 35. artikulua aukera ematen du kuota osotik kentzeko ekitaldian egindako I+G+B gastuen ehuneko bat.

Kenkariaren oinarriari erreparatuz (hau da, ekitaldian egin diren I+G+B gastuak), SZLren 35. artikulua 1.b) eta 2.b) apartatueta adierazten da kenkariaren oinarria murriztu egingo dela jarduera horiek sustatzeko jasotako dirulaguntzen zenbatekoan, zergaldian sarrera gisa egozgarriak badira.

SZLren 39.1 artikulua (SZLren 36-38. artikuluekin batera) ez du uzten I+G+B kenkaria kuota osoaren % 100era irits dadin (murriztuta baitago zergapetze

bikoitzagatiko hobarietan eta kenkarietan); aitzitik, % 25eko muga bateratua ezartzen du (baldintza jakin batzuekin igo egin badaiteke ere).

Ekitaldian izandako I+G+B gastuak direla-eta kendu ez diren kopuruen kenkaria hurrengo 18 ekitaldietara eramateko aukera dago.

Hala ere, SZLren 39.2 artikuluan aurreikusitako baldintza batzuk betetzen direnean, zergadunari aukera ematen zaio kenkaria mugarik gabe aplikatzeko, baina % 20 murriztuta, kuota osoa hutsean utzi arte, eta kuota nahikoa ez izateagatik aplikatu gabeko kopurua itzultzeko eskatu ahal izango du.

**4.-** I+G+B kenkariaren monetizazioa izateko baldintzak ez betetzearen ondorioak.

SZLren 125.3 art.:

*"Salbuespenak, kenkariak edo edozein zerga-pizgarri zerga-oinarrian edo kuota osoan aplikatu ahal izateko, araudi aplikagarrian eskatzen diren baldintzak bete beharko dira.*

*Berariaz besterik ezarri ezean, salbuespena, kenkaria edo zerga-pizgarria aplikatu ondoren hura baliatzeko eskubidea galtzen bada, zergadunak aurreko zergaldietan aplikatutako salbuespenari, kenkariari edo pizgarriari dagokion kuota osoa edo kendutako zenbatekoa ordaindu beharko du betekizunak edo baldintzak betetzen ez diren zergaldiko kuotarekin batera, berandutze-interesez gain".*



## 5.- GFaren jarrera

**5.1.-** GFaren iritziz, I+G+B kenkariaren monetizazioa tributuz kanpoko neurria da, tributu-arau batean txertatua dagoena, eta zerga negatibo moduko bat eratzen du, zerga-sistema subsidioak emateko bide moduan erabiltzea dakarrena.

Horren arabera, dirulaguntza gisa kalifikatzen du eta, beraz, irizten dio Ekonomia Itunak egituraturatutako eskumenen banaketatik kanpo geratzen dela.

**5.2.-** I+G+B kenkariengatiko monetizazioaren izaera ez-tributarioa justifikatzeko, hauxe nabarmentzen du: Tributuen abenduaren 17ko 58/2003 Lege Orokorraren (TLO) 31. artikulua adierazten du tributu bakoitzaren arauditik eratorritako itzulketak soilik direla tributua araudia aplikatzearen ondorioz behar bezala ordaindutako edo jasandako kopuruak, eta berekin dakar berandutze-interesak ordaintzea, ezarritako epean edo, hala badagokio, 6 hilabeteko epean egiten ez denean.

Horrela, bada, haren ustez, tributu bakoitzaren arauditik eratorritako itzulketatzat hartzen dira ordainketa zatikatuak, jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak, ondorioak, eta abar; hau da, administrazioan tributu jakin baten kontura ordaindutako zenbatekoak itzultzea edo lehengoratzea, baldin eta, azkenean, zergadunak ez badu tributua ordaintzeko betebeharririk, edo zenbateko horiek baino zenbateko txikiagoa ordaindu behar badu.

GFaren iritziz, Auzitegi Gorenaren 2012ko abenduaren 17ko Epaiaren babespean (2155/2011 errekurtsua, ECLI:ES:TS:2012:8527), tributu-arauditik eratorritako itzulketek, kalifikazio hori izateko, une horretan zor diren baina zerga-teknikaren ondorioz bidegabe bihurtzen diren kopuruak ordaintzea eskatzen dute.

Epai hori eman zen *diru-sarrera bidegabeen itzulketak eta tributu bakoitzaren arauditik eratorritako itzulketak* bereizteko; horien artean, zor diren diru-sarreretatik eratorritakoak sartzen dira, tributuak aplikatzearen ondorioz bidegabeak direnak (zehazki, egiaztapen baten ondorioz). Testuinguru horretan, uste du tributuaren arauditik eratorritako itzulketen helburua dela tributu bakoitzaren araudiaren ondorioz ordaindutako edo jasandako kopuruak itzultzea. Jakina, eztabaidaren norainokoa eta aztertutako aldiak zehazten dute ebazpenaren sinpletasuna.

**5.3.-** GFaren arabera, kuota nahikoa ez denean soilik da bidezkoa monetizazioa; beraz, eskaera egiten den unean gastu publikoaren izaerara aldatzen da.

Horrenbestez, kenkariaren monetizazioak dirulaguntza gisa konfiguratzen duten ezaugarri guztiak betetzen ditu, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 8/2003 Lege Orokorraren 2. artikulua arabera.

GFak adierazten du, Auzitegi Gorenaren 2017ko uztailaren 13ko Epaiaren arabera (1351/2016 errekurtsoa, ECLI:ES:2017:2978) zerga-onuren helburua zergadunaren kostuak aurrezteka dela; beraz, ezin da inola ere izan administrazio batek dirulaguntza bat balitz bezala egiten duen ordainketa.

Benetan, ez du hori esaten, aparteko interes publikoko gertakari baten publizitatearen zerga-onurak Administrazioari kostuak aurreztu nahi dizkiola baizik.

**5.4.-** GFak azaldu du tributu-arauetan badaudela tributuz kanpoko neurrien beste kasu batzuk, hala nola zerga geroratuen aktiboak zerga-administrazioaren aurrean kreditu galdagarri bihurtzeagatik ordaindu beharreko ondare-prestazioa.

**5.5.-** Era berean, adierazten du oso garrantzitsua dela Sozietateen gaineko Zergaren autolikidaziorako 200 eta 220 erduetan bereizita agertzen dela kuota diferentzialaren itzulketa kenkariaren monetizazioaren itzulketatik, eta hortik ondorioztatzen da izaera desberdineko kontzeptuak direla.

**5.6.-** Hortaz, ulertzen da monetizazioaren ordainketa ez dagoela sartuta TLOren 8.d) artikuluan jasotako zerga-onuretan.

**5.7.-** GFAk dio ezen, Ekonomia Itunaren 18. artikulua arabera, foru-aldundiek dagozkien itzulketak soilik egin behar dituztela, lurralde bakoitzean egindako eragiketen zenbatekoaren arabera.

Alde horretatik, zehazten du Sozietateen gaineko Zergaren itzulketak SZLren 127. artikuluan araututa daudela, hau da, *"zerga horren atxikipenen, konturako sarreraren eta ordainketa zatikatuen batura autolikidaziotik ateratzen den kuotaren zenbatekoa baino handiagoa denean, Administrazioak"* (...) *kuota horren gaineko soberakina itzuliko du ofizioz.*

Horren arabera, GFAk ulertzen du, monetizazioaren ordainketa ez denez aurretiazko diru-sarrera batetik eratortzen, ezin dela ulertu, Ekonomia Itunaren arabera, bere gain hartu beharreko itzulketaren barruan dagoenik.

## **6.- ZAEAREN JARRERA**

**6.1.-** ZAEAREN IRITZIZ, Ekonomia Ituneko lotuneen arabera, GFAk Sozietateen gaineko Zergaren Estatuko Legea aplikatzea besterik ez du, eta Konstituzio Auzitegira jo beharko du, baldin eta bere ustez tributuz kanpoko neurri bat jasotzen badu, dirulaguntza bat ezartzea, zeinak bere zerga- eta finantza-arloko autonomia edo lege ezarritako ondare-oreka urratzen baitu.

**6.2.-** *Kalifikazioaren* helburua da egitateak, egintzak edo negozioak beren benetako tributu-izaeraren arabera egokitzea.

GFAk ezin du Estatuko lege bat modu abstraktuan kalifikatu haren edukia zerga-onura edo dirulaguntza gisa definitzeko.

**6.3.-** ZAEAREN iritziz, I+G+B kenkariaren monetizazioa ez da dirulaguntza bat. TLOren 31.1 artikulua adierazten du Administrazioak itzuliko dituela tributu bakoitzaren araudian aurreikusitakoaren arabera bidezkoak diren kopuruak; beraz, erreferentzia horretan erabat txertatuta geratzen da Sozietateen gaineko Zergaren araudian araututa dagoen I+G+B kenkariaren monetizazioa.

TLOk ez du ezartzen zerga-onuren *numerus clausus*en katalogorik; izan ere, 8.d) artikulua dio legez arautuko direla *Salbuespenak, murrizketak, hobariak, kenkariak eta gainerako onura edo pizgarri fiskalak ezarri, aldatu, ezabatu eta luzatzea*.

Konstituzioaren 134.2 artikulua eta Aurrekontuen Lege Orokorren azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 33.2 artikulua behartzen dute aurrekontu orokorretan jasota uztera Estatuaren tributuei eragiten dieten zerga-onuren zenbatekoa. Ildo horretan, ondo jasota dago I+G+B kenkariaren monetizazioaren gutxi gorabeherako zenbatekoa.

Kenkariaren monetizazioaren hainbat alderdik nabarmen bereizten dute dirulaguntza batetik, batez ere, zenbatekoaren % 20 baliatzeko ezintasunak eta jasotako kopuruengatik zergarik ez ordaintzeak.

I+G+B gastuengatik kenkariaren helburua I+G+B jardueretan gastu/inbertsio enpresarialak sustatzea da, TLOren 2.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Artikulu horretan adierazten da tributuek politika ekonomiko orokorreko tresna gisa balio dezaketela.

Kenkariaren monetizazioak aukera ematen du sortutako eta aplikatu gabeko kenkariaren zati bat dirutan berreskuratzeko, hau da, kenkari baten aurrerapen hutsa da, eta horretarako eskubidea dago.

**6.4.-** Oro har onartzen da zeharkako dirulaguntzat hartzea zerga-onurak, eta horrek aukera emango luke Estatuak ez onartzeko Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 62. artikulutik 64.bis artikulura artekoetan jasotako kenkariak, foru araudiaren arabera proportzioan zergak ordaintzen dituzten zergadunengatik aplikatutakoak.

#### **7.- I+G+B kenkariaren monetizazioa ulertzeko era**

EBZk diru-politika onartu zuenetik, zerga-politika da Espainiako Estatuak duen politika ekonomikorako tresna nagusia.

Hori, batez ere, zerga-oinarriari egindako murrizketen eta kuota osoaren kenkarien bidez egituratzen da (beste xede batzuk ere izan ditzakete, hala nola zergapetze bikoitza saihesteko zerga-teknika).

Sozietateen gaineko Zergaren esparruan, I+G+B kenkaria zerga-onura baten adibide argia da, I+G+Bn inbertitzea sustatu nahi baitu.

Sozietateen gaineko Zergaren konfigurazio tradizionalan ez da jasotzen kuota osoa edo kuota likidoa negatiboak izateko aukerarik, 0 izan daiteke, gehienez ere; hortaz, zergadunak jasandako konturako ordainketen itzulketa bakarrik lortuko du, hau da, egindako ordainketa zatikatuak eta jasandako atxikipenak eta konturako sarrerak.

Hala, zerga-oinarri negatiboak eta aplikatu gabeko kuota-kenkariak hurrengo urteetara eramaten dira.

Horrela, aplikatu gabeko kenkariengatiko kreditu fiskalek etorkizunean kuota likido txikiagoak eta, ondorioz, diru-sarrera txikiagoak ekarriko dituzte (jasandako konturako ordainketen konpentsazioa handiagoa delako) edo jasandako konturako ordainketen itzulketa handiagoak.

Hau da, kenkarien eta jasandako konturako ordainketen artean erlazio zehatz eta eztabaidea dago, eta, beraz, ez dago zalantzarik aplikatu gabeko kuota-kenkariak tributu-izaerako kreditu fiskalak direla.

Estatuko legegileak kuota osoa gainditzen duen zatian I+G+B kuotaren kenkaria monetizatzeke aukera ematen duenean, ez du kenkariaren izaera aldatzen; izan ere, kenkaria aplikatu izan balitz bezala azkentzea dakar berekin, eta, beraz, ezin izango da etorkizunean aplikatu, eta horrek ondorengo ekitaldiren batean diru-sarrera handiagoa edo zerga-itzulketa txikiagoa ekarriko du.

Hortaz, neurriak kreditu fiskal bat aldeztetik baliatzeko aukera ematen du, zergaren geroratzea zehazten duten hainbat neurritan bezalaxe.

Oraingo egitate hipotetikoa jakin ezin daitekeen arren, baldin eta inoiz ez balitz sortuko kuota positibo nahikoa I+G+B gastuengatiko kenkaria deskontatu ahal izateko, horrek ez luke dirulaguntzaren izaerara aldatuko; era berean, ez litzateke aldatuko gainerako onura fiskalak (beste hobari eta kenkari batzuk) galtzearen ondoriozko kreditu fiskalaren izaera, etorkizunean kuota nahikoa ez izatearen ondorioz.

Gainera, nolanahi ere, dirulaguntza bilakatuko litzateke, baldin eta, I+G+B kenkaria konpentsatzeko 18 urteko epea igarotakoan, egiaztatzen bada ez dela behar adina kuota oso sortu, monetizatutako kenkaria deskontatu ahal izateko.

Kreditu fiskala gozatzeko aurrerakinak penalizazio bat dakar: konpentsatu daitekeen zenbatekoaren % 20ari uko egitea.

Kreditu fiskala I+G+B gastuak egiten diren ekitaldian sortzen bada ere, kuota nahikoa ez dagoenean etorkizunean konpentsatzeak ez dakar inoiz interesik sortzea. Are gutxiago kreditu fiskala borondatez aldeztu aurretik gozaten bada.

Kenkaria monetizatzeak aukera egiteko, baldintza batzuk bete behar dira. Baldintza horiek, aldi baterako, aukera egiten den zergaldia amaitu eta 24 hilabetera iristen dira (zergaldi hori, gutxienez, gastua egin zen ekitaldiaren ondorengo urtea da). Baldintza horiek betetzen ez badira, bidegabe jasotako zenbatekoa ordaindu beharko da, dagozkion berandutze-interesekin batera. Itzulketari aplikatu beharreko tributazio-proporzioa monetizazioaren urteari dagokiona izango da, ez baita ez-betetzearen urteko kuota osoaren parte, baizik eta harekin batera sartutakoa.

Hala, inkongruentea litzateke foru-aldundiak bere monetizazio-proporzioa ordaintzeko betebeharririk izan nahi ez izatea, baina, haren aplikazioa baldintzatzen duten baldintzak betetzen ez badira, dagokion zenbatekoa kobratzeko eskubidea izatea, SZLren 125.3 artikulua araberakoa.

Azkenik, monetizazioa dirulaguntza bat bada, diru-sarrera konputagarria izango litzateke ordainketa jasotzen den zerga-oinarrian.

Inguruabar hori ez gertatzeaz gain, kenkaria eragiten duen gastua sortzen denetik islatzen da monetizazioaren eta dirulaguntzen arteko aldea, eta hori

bateraezina da dirulaguntzak jasotzearekin, SZLren 35. artikuluan xedatutakoaren arabera.

## 8.- Prozedurak metatzea

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 8. artikulua egindako igorpenaren arabera aplikatzen denak, hauxe dio:

*Prozedura hasten edo izapidetzen duen administrazio-organoak, prozedura hasteko modua edozein dela ere, erabaki dezake, ofizioz edo alderdi batek eskaturik, prozedura hori metatzea oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin, organo berak izapidetu eta ebatzi behar badu prozedura.*

*Metatzeko erabakiaren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu.*

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

## ERABAKITZEN DU

1.- Adieraztea GFAk eskumena duela 2016., 2017., 2018., 2019. eta 2020. urteetan zergapekoak izandako I+G+B gastuengatiko kenkariaren monetizazioaren proportzioa itzultzeko.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta CCISLri jakinaraztea.